



FUNDACIÓN
CAJANAVARRA

civican

jarduerak
2019ko UDABERRIA





**Azala Adriana Páramos de Paz-ek egin du,
eta haren izenburua da "Unidos CIVICAN". VIII. Imagina CIVICAN
Diseinu Lehiaketako finalista izan zen.**

CIVICAN - Nafarroako Kutxa Fundazioaren Zentro Soziokulturala

Pio XII.a etorbidea, 2, 31008 PK Iruñea - T 948 222 444

www.fundacioncajanavarra.es

informacioncivicana@fundacioncajanavarra.es

Facebook - @civicanaFCN - @FundCajaNavarra - #ParaPersonas

DL: NA-2062-2009

UDABERRIKO MUSIKA LABORATEGIAK
JOKO-TK IPUINEN BEHATOKIA
GIZARTE EKINTZA PENTSAMEDUA
BERDINTASUNA MANUEL VILAS
CIVICAN FAMILIA BERRIKETAN
NIRE LEHEN ALDIA EUSKARA
IPUINAREN ORDUA GAURKOTASUNA
ARKITEKTURA SOLASALDIAK
ANDRÉS BARBA GIZA LIBURUTEGIAK
ITAKA AHOZKO KONTAKIZUNA
DANTZA MALAKATU
PERIFERIAK ENTZUNALDI GIDATUAK
TESTUINGURUAK ESPERIENTZIAK
NAFARROA LIBURUZ LIBURU
BOZ GORAN BIBLIOTEKA
GAZTELURRALDEA LITERATURA
ISTERRIA FOROA SORKUNTZA
LEHEN HAURTZAROA



14
GIZARTE
EKINTZA

- Testuinguruak
- Periferiak
- Beste ikuspegi batzuk, errealitate bera
- Jardun dezagun berriketan
- Isterria Foroa



12
CIVICAN
INFORMAZIOA



22
KULTURA ETA
ONDAREA

- Zer da CIVICAN?
- Nola heldu
- Orduategiak
- Jardueretan parte hartzea
- Aretoak uztea eta alokatzea



- Gauerdiko elkarrizketak
- CIVICAN topaketak
- Udaberriko musika
- Entzunaldi gidatuak
- Dantza belaunaldia
- Donejakue Jardunaldiak
- Imagina CIVICAN lehiaketa

34
HEZKUNTZA

- Berrikuntza, sormen eta ekintzaitza jardunaldiak





ez ezazu galdu!

36
INGURUMENA

- Bizi naizen hiria (bir)pentzatzea

38
CIVICAN FAMILIA

- Pazko asteko oporrak
- Nire lehen aldia
- Familia agertokira
- Murgiltze artistikoko laborategiak
- Ipuinaren ordua



- Irakurketa erakusleihoa
- Literatura solasaldiak
- Ezagutu zure liburutegia
- Bost zentzumenekin irakurtzea
- Apirila, liburuaren hilabetea
- Giza liburutegiak
- #Liburutegia, #Gaztelurraldea

46
CIVICAN LIBURUTEGIA



apirila

ASTELEHENA

1 **PRESTAKUNTZA JARDUERA** 52. or.
17:00 Liburutegirako bisita gidatuak

HEZKUNTZA 35. or.
Berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzailetzaren VIII. jardunaldiak **Apirilaren 5era arte**

IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA 47. or.
- Irakurtzea eta irakurria izatea
- Ikusi nola irakurtzen duten!
Apirilaren 30era arte


ASTEARTEA

2 **HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA** 54. or.
18:00

LEHIAKETA 55. or.
2019ko AZ saria:
Irakurtzea eta irakurria izatea
Apirilaren 1etik 12ra.

ASTEAZKENA

3 **IPUINAREN ORDUA** 45. or.
18:00 Liburuak ehuntzen



9 **LITERATUR SOLASALDIAK** 49. or.
18:00 Itaka: Emakumeak borrokarako prest

PRESTAKUNTZA JARDUERA 52. or.
18:00 Irakasleentzako bisita gidatuak


10 **IPUINAREN ORDUA** 45. or.
18:00 Ipuin robotikoak

LITERATUR SOLASALDIAK 51. or.
16:15 - 17:00.
Malakatu



16 **LITERATUR SOLASALDIAK** 49. or.
18:00 Kafea liburuekin:
Sudurren istorioak

17



23 **OSKOLA DUTEN LIBURUAK** 55. or.
10:00-11:00 (4-6 urte)
11:30-12:30 (7-10 urte)

ERAKUSKETA 32. or.
Irakurleari omenaldia

ERAKUSKETA 56. or.
Imagina CIVICAN
Maiatzaren 4ra arte.

IPUIN ANTZEZTUA 39. or.
18:00 Uretan pasatutako ipuinak

24 **ANIMAZIOZKO ZINEMA** 39. or.
18:00 ¡Canta!

29 **BOZ GORAN** 60. or.
18:00

30 **LITERATUR SOLASALDIAK** 50. or.
18:00 Ipuinen behatokia:
hemengoa naiz, handik nator

EGUTEGIA 2019 APIRILA-MAIATZA-EKAINA

OSTEGUNA

4

LANTEGI-LEHIAKETA
52. or.
17:00 - 20:00
Sasijakintsuen bila
Ekainaren 13ra arte



25

TALLERA 40. or.
18:00 Egin zure zinema liburua

OSKOLA DUTEN LIBURUAK 55. or.
10:00-11:00 (4-6 urte)
11:30-12:30 (7-10 urte)

OSTIRALA

5

LITERATUR SOLASALDIAK 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

12

LITERATUR SOLASALDIAK 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

19

LITERATUR SOLASALDIAK 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

26

TALLERA 40. or.
18:00 Egin zure zinema liburua

LITERATUR SOLASALDIAK 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

LARUNBATA

6

JOLASAK 61. or.
10:00 - 14:00 Joko-TK,
abentura eta jolasa

13

ESPERIENTZIA 41. or.
17:30ean eta 18:30ean
Taupadak

JOLASAK 61. or.
10:00 - 14:00 Joko-TK,
abentura eta jolasa

20



JOLASAK 61. or.
10:00 - 14:00 Joko-TK,
abentura eta jolasa

27

IKUSKIZUNAK 40. or.
18:00 Artilogios

JOLASAK 61. or.
10:00 - 14:00 Joko-TK,
abentura eta jolasa

IGANDEA



28

maiatza

ASTELEHENA

ASTEARTEA

ASTEAZKENA

1

6

ERAKUSKETA 15. or.
Hondamenaren oinordekoak
Maiatzaren 31ra arte

BOZ GORAN 60. or.
18:00

7

BISITA GIDATUA 15. or.
18:00 "Herederas de las
ruinas" erakusketara

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 50. or.
18:00 Liburuz liburu: Besteen
seme-alabak

8

**ENTZUNALDI
IRUZKINDUA** 27. or.
19:30 Lehenengo saioa:
NOSen denboraldiko 12.
zikloa

IPUINAREN ORDUA
45. or.
18:00 Wizard of colors

13

**PRESTAKUNTZA
JARDUERA** 52. or.
17:00 Liburutegirako bisita
gidatuak

BOZ GORAN 60. or.
18:00

14

PROGRAMA BEREZIA
28. or.
19:00 Dantzan

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 49. or.
18:00 Kafea liburuekin:
Sudurren istorioak

15 **LITERATUR SOLA-
SALDIAK** 51. or.
16:15 - 17:00
Malacatú

**ENTZUNALDI
IRUZKINDUA** 27. or.
19:30 Bigarren saioa: NOSen
denboraldiko 13. zikloa

IPUINAREN ORDUA
45. or.
18:00 Ipuin azukretuak

20

BOZ GORAN 60. or.
18:00

21

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 49. or.
18:00 Itaka: Emakumeak
borrokarako prest
**PRESTAKUNTZA
JARDUERA** 52. or.
18:00 Irakasleentzako bisita
gidatuak

22

KONTZERTUA 25. or.
19:30 Aitortza Astor
Piazzolla-ri

IPUINAREN ORDUA
45. or.
18:00 Ashiraren bidaia

27

BOZ GORAN 60. or.
18:00

28

SOLASALDI-TAILERRA
17. or.
18:00 *Aya de Yopougon*

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 50. or.
18:00 Ipuinen behatokia:
hemengo naiz, handik nator

29

**CKONTZERTU
DIDAKTIKOA** 25. or.
19:00 Euskal eta erriar
operak berri elkarrekin
IPUINAREN ORDUA
45. or.
18:00 Hizkiez osoturiko euri
tantak

EGUTEGIA 2019 APIRILA-MAIATZA-EKAINA

OSTEGUNA

2

**IRAKURKETA
ERAKUSLEIHOA** 48. or.
Munduko bizilagunak
Ekainaren 8ra arte

9

**TOPAKETA
PERTSONALAK** 58. or.
18:00 - 20:00 Giza
liburutegiak.

LABORATEGI SOZIALA
19. or.
10:00 - 14:00 Zerk egiten du
abegitsu irakurketa?

TOPAKETA 24. or.
19:30 Andrés Barba.
Umorearen mugak

16

**IRAKURKETA
PUBLIKOA** 53. or.
19:30 Ilunpetan
irakurtzea

LABORATEGI SOZIALA 19. or.
12:00 - 14:00 Zer hesi ezabatu
behar dira nahitaez?

HITZALDIA 30. or.
19:30 Maisulana eta haren
egilea. Atari bat, arkitekto bat,
katedral bat

23

LABORATEGI SOZIALA

19. or.
12:00 - 14:00 Nola bultzatu
daiteke elkarbizitza?

HITZALDI MUSIKATUA
30. or.
19:30 Musika Bidearen
Urrezko Aroan

30

LABORATEGI SOZIALA

19. or.
12:00 - 14:00 Hasiko gara
lanean?

MAHAI INGURUA 30. or.
19:30 Donejakueren
Erromesaldia gazteekin,
hezkuntza eta ebangelizazio
proiektu baten baitan

OSTIRALA

3

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

TOPAKETA 21. or.
Ezgaitasuna eta adimen
osasuna: jardunbide egokiak
eta esku hartzeko ereduak

SARI BANAKETA 32. or.
IX. Imagina CIVICAN
diseinu lehiaketa

10

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

17

TOPAKETA 23. or.
23:30 Manuel Vilas

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

24

TOPAKETA 16. or.
19:00 Afrika anitzak

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

31

TOPAKETA 21. or.
18:00 Esklerosi anizkoitz
ikusezina

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 51. or.
18:00 Ostiralean... TBO
19:00 Bucclub

LARUNBATA

4

TOPAKETA 21. or.
Ezgaitasuna eta adimen
osasuna: jardunbide egokiak
eta esku hartzeko ereduak

LABORATEGIA 37. or.
18:00 Ehunen arkitektura

11

IKUSKIZUNA 42. or.
18:00 Noa, ui, ui, ui!

JOLASAK 61. or.
10:00 - 14:00 Joko-TK,
abentura eta jolasa

18

IKUSKIZUNA 42. or.
18:00 Beel (artalde)




JOLASAK 61. or.
10:00 - 14:00 Joko-TK,
abentura eta jolasa

25

LABORATEGIA 43. or.
18:00 Geodesia
ziberespaziala

JOLASAK 61. or.
10:00 - 14:00 Joko-TK,
abentura eta jolasa

IGANDEA



ASTELEHENA

ASTEARTEA

ASTEAZKENA

3

**PRESTAKUNTZA
JARDUERA** 52. or.
17:00 Liburutegirako bisita
gidatuak

BOZ GORAN 60. or.
18:00

4

ERAKUSKETA 20. or.
Gaurko egunez
Ekainaren 28ra arte

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 49. or.
18:00 Kafea liburuekin:
Sudurren istorioak

5

KONTZERTUA 26. or.
19:30 NGMMKko hari
laukotea

IPUJINAREN ORDUA
45. or.
18:00 Ez umea eta zuhaitza

10

**IRAKURKETA
ERAKUSLEIHOA** 48. or.
- Oporretan irakurtzeko
- Ondo ibili...!
Uztailaren 4ra arte

BOZ GORAN 60. or.
18:00

11

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 50. or.
18:00 Liburuz liburu: Besteen
seme-alabak

12


IPUJINAREN ORDUA
45. or.
18:00 Pontxaren ipuin
jostariak

**LITERATUR
SOLASALDIAK** 51. or.
16:15 - 17:00
Malakatu

17

BOZ GORAN 60. or.
18:00

18



19



24



26



ekaina

EGUTEGIA 2019 APIRILA-MAIATZA-EKAINA

OSTEGUNA

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA

		1 LABORATEGIA 43. or. 18:00 Collage bidaiariak JOLASAK 61. or. 10:00 - 14:00 Joko-TK, abentura eta jolasa	2
6	7 LITERATUR SOLASALDIAK 51. or. 18:00 Ostiralean... TBO 19:00 Bucclub	8 LABORATEGIA 37. or. 18:00 Itzalen ehiztariak JOLASAK 61. or. 10:00 - 14:00 Joko-TK, abentura eta jolasa	9
13	14 LITERATUR SOLASALDIAK 51. or. 18:00 Ostiralean... TBO 19:00 Bucclub	15 LABORATEGIA 43. or. 18:00 Soinu narrazio interaktiboak JOLASAK 61. or. 10:00 - 14:00 Joko-TK, abentura eta jolasa	16
20	21	22	23
27	28	29	30

CIVICAN INFORMAZIOA



ZER DA CIVICAN?

CIVICAN, Nafarroako Kutxa Fundazioaren zentro soziokulturala, belaunaldien eta diziplinen arteko topagune bat da, helburu dituen gizartea mugiaraztea eta jendea aktiboki parte hartzera bultzatzea.

CIVICANek programa sendo bat proposatzen du, jarduera kultural, sozial eta hezitzailez osatua. Zentroak hainbat gela eta areto ditu: 153 laguntzako entzunaretoa, erakusketa gela bat, erabilera anitzeko lau gela, sukalde bat eta dantza areto bat. Gainera, liburutegi bat ere badu, bi irakurketa gelarekin, liburu aukera zabala eskaini eta irakurketa sustatzeko jarduera ugari antolatzen dituena; kafetegi bat, gastronomia eskaintza askotariko batekin; eta igerileku girotu bat, igeri egiten ikasteko edo gimnastika akuatikoa egiteko.

CIVICAN Nafarroako gizarte erakundeak biltzen dituen gunea da, eta zentroaren programazioa erakunde horien jardueren bidez osatzen da.

NOLA IRITSI

CIVICAN - Pio XII.a etorbidea, 2
PK 31008 Iruña – T 948 222 444



Autobusez. Geltokia gertu duten lineak: 1, 4, 15, 18.
Erabil daitezkeen beste linea batzuk: 8, 9, 10, 12.



Bizikletaz. Bizikleta aparkalekua sarrera nagusian.



Autoz. Aparkaleku publiko bat hurbil.

ORDUTEGIAK

Informazio gunea - Astelehenetik larunbatera*, 9:00-21:00

Programazio bulegoa - Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 eta 17:00-20:00

Liburutegia (>12 urte) - Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 eta 16:00-21:00. Larunbatetan*, 9:00-14:00.

Haur liburutegia (3-12 urte) - Astelehenetik ostiralera, 17:00-20:00. Larunbatetan*, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.

Kafetegia - Astelehenetik ostiralera, 9:30-14:00 eta 16:00-21:00. Larunbata*: 10:30-14:00 eta 16:00-21:00.

*Ekainaren 22an eta 29an (larunbata) CIVICAN itxita egongo da.

JARDUERETAN PARTE HARTZEA



CIVICAN gune irisgarri bat da.



Entzunaretoan egiten diren jarduera guztiak irisgarriak dira entzumen arazoak dituzten pertsona guztientzat, begizta magnetikoei esker.

Pertsona gorrentzat irisgarriak diren jarduerak (zeinu hizkuntzako interpreteekin edo/eta azpitoluekin egindakoak) sinbolo egokien bidez daude adierazita.



Eraikinetarako eta erakusketetarako sarbidea librea eta doakoa da.

Ikastaro eta tailerretan parte hartzeko, alde aurretik izena eman behar da.

Jardueretara sartzeko*, gonbidapena eskuratu behar da, jarduera hasi baino ordubete lehenagotik hasita (bi gonbidapen gehienez pertsona bakoitzeko; jarduera familientzat bada, lau gonbidapen gehienez pertsona bakoitzak).

Jardueretan parte hartzeko, CIVICANen datu basean alta emanda egon behar da. Edozein erregistra daiteke doan, nortasuna ziurtatzeko agiri ofiziala helarazita. Atingabeek gurasoekin edo legezko tutorearekin joan behar dute.


*Ikuskizun Publikoei eta Josteta Jardueri buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legeak arautua.

ARETOAK UZTEA ETA ALOKATZEA

Iruñeko erdigunean kokatua, CIVICANek gelak eta aretoak eskaintzen ditu era guztietako erabileretarako: hitzaldiak, aurkezpenak, ikastaroak, bilerak, kontzertuak, jardunaldiak eta biltzarrek, etab.

CIVICANek doan uzten dizkie gelak helbide soziala Nafarroako Foru Erkidegoan duten irabazi asmorik gabeko erakunde, instituzio, elkarte eta fundazioei, haien helburuak bat badatoz Nafarroako Kutxa Fundazioarekin eta laguntzak jaso badituzte fundazioaren laguntza deialdian.

Gainera, gelak eta aretoak alokatu ahal dizkie ere (kostu bidez) xede komertzial bat duten erakundeei, Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntzak jaso badituzte fundazioaren laguntza deialdian.

- 
- > Testuinguruak
- > Periferiak
- > Beste ikuspegi batzuk, errealitate bera
- > Jardun dezagun berriketan
- > Isterria Foroa

GIZARTE EKINTZA

TESTUINGURUAK

Nafarroako Kutxa Fundazioak, gizartearen eta kulturaren arloko beste erakunde batzuekin elkarlanean, gaur egungo errealitatea lantzen du, egoeraren diagnostikoa eginez eta mundu global eta konplexu honen erronketarako erantzunak proposatuz.

Argazkia: Pablo Tosco.



ERAKUSKETA

Hondamenaren oinordekoak

Maiatzaren 6tik 31ra.
Atarte

> Pablo Toscoren argazki erakusketa, Oxfam Intermónekin elkarlanean.

Hiru urteko gatazkaren ondoren, Afrika Erdiko Errepublika borrokan dabil zulo beltzetik eta iluntasunetik ateratzearren, behar humanitario ikaragarrien eraginez ahulduta.

Testuinguru horretan, emakumeak dira gehien sufritzen dutenak; izan ere, askok sexu abusua jasan zuten, senarrak, seme-alabak edo gurasoak galtzeaz gain.

Argazki erakusketa hau ibilbide bat da, gerrak behartuta migratu behar izan ondoren lazgarrikerien kontra borrokatzen ari diren emakumeen errealitatea islatzen duena.

BISITA GIDATUA
ERAKUSKETARA
PABLO
TOSCOREKIN
Maiatzak 7,
asteartea, 18:00.
Atarte

TESTUINGURUAK

TOPAKETA

Afrika anitzak

Maiatzak 24, ostirala, 19:00.
Entzunaretoa



> Kolaboratzaileak: Al Sur de Sáhara: África Imprescindible partzuergoa eta Iruñeko Saharaz hegoaldeko komunitatea.


Maiatzaren 25a Afrikaren Eguna da, eta helburu du herrialde kolonizatzaileetatik independentzia politikoa lortu zen eguna gogora ekartzea eta afrikarrei dagokien garrantzia ematea bizi diren lekuan bizi direla ere.

Iruñeko Saharaz hegoaldeko emakumeek eta gizonak 60ko hamarkadatik gaur egunera arte eman diren independentzia prozesuak gogoratuko dituzte, eta beren eskubideak aldarrikatzen jarraituko dute han eta hemen.

Solasaldiak, ahozko kontakizunak, proiektzioak, antzerkia eta musika, afrikarrak protagonista bihurtuta. Gurekin partekatuko dute haien ospakizuna.

Ilustrazioak: Clément Oubrierie.





SOLASALDI-TAILERRA

Aya de Yopougon

Martes 28 de mayo, 18:00. Aula 1

> Kolaboratzailea: Al Sur de Sáhara: África Imprescindible partzuergoa
Pablo Fernández del Castillo "Pabs" eta Andrea Aisa Vegarekin

Marguerite Abouet-en Aya de Yopougon eleberri grafikoa abiapuntu gisa erabiliko da, komikiak bizimodu pertsonalen eta kolektiboen arteko konexio elementu gisa duen zereginaren inguruko lan saio honetan. Aya Afrikari buruzko estereotipoetatik urruntzen da, Boli Kostako herritarren eguneroko errealitatea erakusteko. Ilustrazioei behatuta, kronika kostunbristaren gainean lan egin nahi da, eta heroi honen inguruan hausnartu kolektiboki eta mural kolektibo bat egin, irakurketan sortutako ideiak eta parte hartzaileen bizi esperientziak integratuta.

"Mirador de cuentos" (CIVICAN liburutegia) eta "Club de cómic" (Yamaguchiko liburutegi publikoa) irakurketa klubei zuzendutako jarduerak.

**Parte hartzea dauden plaza mende egongo da.
Izen emateak CIVICAN liburutegian.**

PERIFERIAK

Nafarroako Kutxa Fundazioak bultzatutako esku hartze sozialerako programa, arazo sozial berriei berriari erantzutea helburu duena, bizikidetzeta eta elkartasun modu berriak bultzatuko dituzten ekintzen bidez.

LABORATEGI SOZIALA

Elkarbizitza liburuekin

Maiatzaren 9tik 30era. 3. gela

> Liburutegien arloan aritzen diren eta bitartekaritza sozialarekin lotura duten profesionaleri zuzendutako programa.

Laborategiaren helburua da kulturaren zeregin integratzaileari eta liburutegiek emantzipazio eta elkarbizitza gune gisa eskaintzen dituzten aukerei buruz hitz egitea eta hausnarketak partekatzea. Gaur egungo testuingurua aztertuta, gizarte justuagoa izateko eta batzeko ideiak proposatuko dira ikuspuntu kritikoa batetik.

Lehenengo saioa trinkoa izango da eta hainbat liburutegi testuingurutan gauzatutako programa eta esperientzia nabarmenak emanen dira ezagutzera bertan; eta bigarren fasean beste hiru saio egingen dira, liburutegien arloko kultura bitartekaritzarekin zerikusia duten hainbat alderdi lantzeko.

Nahi duenak parte har dezake, alde zuzenetik CIVICANen izena emanda.



Ilustrazioak: K. Crowther.



Zerk egiten du abegitsu irakurketa?

Maiatzak 9, osteguna, 10:00-14:00

Angelina Delgado liburuzain, artista eta "Casa de palabras Andalucía" proiektuaren kide fundatzailearekin. Greziako errefuxiatu esparruetan esperientziak gauzatu izan ditu eta babesik gabe dauden kolektiboak gizarteratzearen lan egiten du. Liburu gutxi batzuk hartuta, dinamikak eta galderak partekatuko ditu, eta literaturak eta arteak mundu bizigarriago baten eraikuntzan duten egitekoari buruz hausnartzen saiatuko da.

Zer hesi ezabatu behar dira nahitaez?

Maiatzak 16, osteguna, 12:00-14:00

Eliana Alemán NUPEko irakasle eta soziologian doktorearekin. Nazioarteko lankidetzaren proiektuetan eta esku hartze sozialerako proiektuetan lan egin izan du, irakurketa eta integrazio espazio bat sustatuz gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonentzat.

Gizartearen eskariak eta liburutegien eskaintza alderatzeko saio bat, integrazioa ahalbideratuko duen testuinguru motibagarri eta anitz baten bila.

Nola bultzatu daiteke elkarbizitza?

Maiatzak 23, osteguna, 12:00-14:00

Eliana Alemánekkin.

Jolasaren arauetaz buruzko gogoeta: araudiak, errespetua eta komunikazioa liburutegietako egoera arruntetan.

Hasiko gara lanean?

Maiatzak 30, osteguna, 12:00-14:00

Eliana Alemánekkin.

Laborategiari amaiera emateko, parte hartzaileek azken dokumentu bat egingo dute, non liburutegien arloko kultura bitartekaritzarako dinamikak eta proiektuak bilduko dituzten.

BESTE IKUSPEGI BATZUK, ERREALITATE BERA

Herritarrak ezgaitasunaren inguruan sentsibilizatzea erronka bat da oraindik ere XXI. mendean Programa honen bidez lorpen sozialak eta nolabaiteko ezgaitasuna duten kolektiboetako pertsonak agerian jarri nahi dira, eta, gainera, gizarte eredu inklusiboago baten eraikuntzari bultzada eman nahi zaio.



ERAKUSKETA

Gaurko egunez

Ekainaren 4tik 28ra. Atartea

> Kolaboratzailea: Garuneko paralisia duten pertsonen laguntzeko Nafarroako elkarte - ASPACE

Erakusketa honen bidez garuneko paralisia duten pertsonak agerian jarri eta gizarte sentsibilizatu nahi da, txuri beltzeko 30 argazkiren bidez hiru gai hauek jorratuta: adiskidetasuna, bikote bizitza eta familiaren bilaketa.

Chomi Delgado argazkilaria garuneko paralisia duten pertsonen arteko harremanak naturaltasunez islatzen saiatu da. Horretarako, elkarren osagarri diren historiak bilatu ditu, epaitu gabe onartuak izatea nahi duten pertsonen historiak. Artistak sexualitatea ikusgai jarri nahi du baina bistakoa denetik aldentuta, sentimenduetatik oso gertu.

JARDUN DEZAGUN BERRIKETAN

Esklerosi anizkoitza duten pertsonen egunero jasaten dituzten arazoak bistaratzeko, bizi kalitate hobea lortzeko soluzioak eskaintzea eta gaixotasun horri buruzko eztabaida foroak ezartzea dira Jardun dezagun berriketan jardunaldien helburu nagusiak.

TOPAKETA

Esklerosi anizkoitz ikusezina

Maiatzak 31, ostirala, 18:00. Entzunaretoa

> Kolaboratzailea: Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte – ADEMNA.

Esklerosi anizkoitzaren sintoma asko ikusezinak dira eta, horregatik, jendeak sarritan ez du gaixotasun hau behar bezala hautematen edo zalantzan jarri ere egin dezakete. Sintoma horietako batzuk dira nekea, oinaze kronikoa edo arazo kognitiboak, hala nola memoria galera edo informazioa prozesatzeko zailtasunak.

Neurologiako profesionalekin eginen den topaketa honetan, gaixotasun hori duten pertsonen esperientziak ezagutuko ditugu, gizartea sensibilizatzearen gaixotasun hori duten pertsonen eskubideen inguruan.



ISTERRIA FOROA

Nafarroako Kutxa Fundazioaren Isterria heziketa bereziko zentroak topagune bat eta hausnarketarako espazio bat eskaini nahi ditu adimen ezgaitasunaren inguruan.

Foro honen bidez, hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua hobetzeko hezkuntza estrategia berriak landuko dira.

TOPAKETA

Ezgaitasuna eta adimen osasuna: jardunbide egokiak eta esku hartzeko ereduak


Maiatzak 3 (ostirala) eta 4 (larunbata). Entzunaretoa

> Programa hau orotariko irakasleei, pedagogia terapeutiko, hezkuntza berezi, eta entzumeneko eta hizkuntzako irakasleei, logopedei, hezitzaileei eta terapeuta okupazionalari zuzenduta dago.

Foroaren helburua da jardunbide egokien berri ematea eta jokabide nahasmendua edo adimen osasuneko arazoak dituzten pertsonentzako laguntzak ezagutzera ematea.

Nahi duenak parte har dezake, aldeztatik hemen izena emanda:
foroisterria@isterria.com

(Komunikaziorako laguntza behar izanez gero, hala nola zeinu hizkuntzako interpreteak edota azpititulua, arren adierazi izen ematean)

- 
- > Gauerdiko elkarrizketak
 - > CIVICAN topaketak
 - > Udaberriko musika
 - > Entzunaldi gidatuak
 - > Dantza belaunaldia
 - > Donejakue Jardunaldiak
 - > Imagina CIVICAN lehiaketa

KULTURA ETA ONDAREA

GAUERDIKO ELKARRIZKETAK

Gauerdiko elkarrizketak literaturako bide desberdinetan barneratzen da gogoeta egitera edo mundu urrun eta imajinatuetara bidaiatzera gonbidatzen duten idazleen eskutik.

Diario de Navarrarekin lankidetzan egindako programa.

Sarrera doan, egun bereko 9:00etatik aurrera gonbidapenak jasota.

TOPAKETA

Manuel Vilas

**Maiatzak 17, ostirala, 23:30.
Entzunaretoa**

> Manuel Vilas (Barbastro, 1962) poeta eta kontalaria da. Bere poesia liburuen artetik, hauek azpimarratu daitezke: Resurrección (2005), Calor (2008), Gran Vilas (2012) eta El hundimiento (2015). Eleberrri hauen egilea da: España (2008), Punto de Lectura (2012), Quimera aldizkariak XXI. mendeko lehenengo hamarkadan gaztelaniaz idatzitako hamar eleberrri garrantzitsuenetako bat izendatu zuena, Aire Nuestro (2009, Cálamo saria), Los inmortales (2012) eta El luminoso regalo (2013). Vilasen lanak poesiako nahiz narratibako antologia nazional nagusietan jasota daude.

CIVICANen bere azken eleberria izango du hizpide: Ordesa (2018).

Zurztasunaren kronika bat da edo, beharbada, babesgabetasun sakon batena. Historia honen narratzailearena. Eta, sinekdoke ongi egin bati esker, Espainiako erdi eta behe klase osoarena ere izan liteke XX. mendeko azken hamarkadetan eta XXI. mendeko lehen hamarkadetan.



CIVICAN TOPAKETAK

Pentsamendugune eta eztabaidagune honetan, zientzia, gizarte eta kultura arloko hainbat protagonistak ikusleekin partekatuko dituzte etorkizuneko gizarteak aurrean dituen erronka nagusiak.



TOPAKETA

Andrés Barba. Umorearen mugak

Maiatzak 9, osteguna, 19:30. Entzunaretoa

> Andrés Barba (Madril, 1975) eleberrigilea, saiakeragilea, itzultzailea eta prentsako kolaboratzailea da. Granta aldizkari entzutetsuaren arabera, gaztelaniazko kontalari gazte onenetako bat da. Barbaren lanak hamazazpi hizkuntzatar itzuli dituzte.

Besteak beste, *La hermana de Katia* (Herralde Sarietako finalista, 2001), *Versiones de Teresa* (Torrente Ballester Saria, 2006), *La ceremonia del porno* (Javier Montesekin idatzitako saiakera eta Anagrama Sariaren irabazlea, 2007), *Muerte de un caballo* (Juan March Saria, 2011), *Ha dejado de llover* (Nord-Sud Saria, 2012), *La risa caníbal* (2016) eta *República luminosa* (Eleberriarren Herralde Saria, 2017).

Topaketa hauetan, umorean jarriko du arreta; pentsamolde zinikoan, gizartean duen boterean, edo tresna gisa izan lezakeen balioan. Roberto Valencia idazleak aurkeztuko du Barba, eta elkarrekin jardungo dute saio osoan.



UDABERRIKO MUSIKA

Nafarroako Kutxa Fundazioak hainbat musika estilotako kontzertuak antolatu ditu, udaberrirako, bere zentro soziokulturalean.

KONTZERTUA

Aitortza Astor Piazzolla-ri

**Maiatzak 22, asteazkena,
19:30. Entzunaretoa**

> Kolaboratzailea: Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa. Taldea: Alba Gurra, pianoa; Leire Ayestarán, akordeoia; Irati Sanz, biolina; Jon del Campo, gitarra, eta Marcelo Escrích, kontrabaxua. Goi Mailako irakasle batek eta lau ikaslek osatutako boskote honek Astor Piazzolla argentinar konpositorearen abestiak entzuteko aukera eskainiko digu. Piazzolla tango konpositore nabarmena izan zen, eta XX. mendeko musikaririk onenetako bat izan zela jotzen da.

KONTZERTU DIDAKTIKOA

Euskal eta errusiar operak berriro elkarrekin

Maiatzak 29, asteazkena, 19:00. Entzunaretoa

> Hizlari eta zuzendaria: Jordi Freixa

Ahotsak: Nafarroako Abesbatzen Federazioko abesbatza lirikoa

Kontzertuaren aurretik sarrerako hitzaldi txiki bat egongo da, a priori horren desberdinak diren euskal eta errusiar tradizioen artean zer lotura dauden azaltzeko. Zarzuelatik operara bitarteko erreperitorioari buruzko bitxikeriak eta xehetasunak.

Jordi Freixa zuzendariak abesbatza txapelketak, jaialdiak eta lehiaketak antolatu ohi ditu, eta, 2000z geroztik, Bordeleko Zortzikoteen Nazioarteko Jaialdiaren arduraduna da. Abesbatza lirikoa, bestalde, 2017an sortu zuen Nafarroako Abesbatzen Federazioak proiektu gisa, abesbatzei haietako abeslariak ohiko musika motez gain beste batzuk ere lantzeko aukera ematearren, abeslari kopurua, obra mota, nahiz generoa kontuan hartuta.



jarduerak

KULTURA ETA ONDAREA

 UDABERRIKO MUSIKA



KONTZERTUA

NGMMKko hari laukotea

Ekainak 5, asteazkena, 19:30. Entzunaretoa

> Kolaboratzailea: Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa. Taldea: Mirari Etxeberria eta Irati Sanz, biolinak; Cynthia Nieves, biola, eta Matxalen Ercilla, biolontxelo.

Melodia biolinen eskutik agertu ohi den arren, hari laukote batean gainerako musika tresnak ez dira akonpainamendu hutsa. Ehundura trinko eta elementuetan aberatsa sortzen dute, melodiatik abiatuta: egitura, tonalitateak, kadentziak eta motibo nagusia.

ENTZUNALDI GIDATUAK

Nafarroako Kutxa Fundazioak eta Baluarte Fundazioak Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren (NOS) denboraldiko kontzertuak entzuleei gerturatu nahi dizkiete, entzunaldi iruzkinduen bidez eta artistekin topaketak eginez. Jarduera hau zikloko kontzertuen aurreko asteazketan izango da, eta kontzertuak hobeto interpretatzeko eta haiekin gehiago gozatzeko giltzarriak eskaintzea du helburu.



ENTZUNALDI IRUZKINDUA

Lehenengo saioa: NOSen denboraldiko 12. zikloa

Maiatzak 8, asteazkena, 19:30. 3. gela

> Irakaslea: María Setuáin, irakasle espezializatua musika bitartekaritzan.

Programa:

LEHENENGO ZATIA: Carl Maria von Weber, Peter Schmoll, obertura. Franz Liszt, Piano eta orkestrarako 2. kontzertua, La maiorren, S 125.

BIGARREN ZATIA: Franz Schubert, 9. sinfonia Do maiorren, D 944 "Handia".

Pianoa: François-Frédéric Guy,
Zuzendaria: Antoni Wit

ENTZUNALDI IRUZKINDUA

Bigarrena saioa: NOSen denboraldiko 13. zikloa

Maiatzak 15, asteazkena, 19:30. 3. gela

> Irakaslea: María Setuáin, irakasle espezializatua musika bitartekaritzan.

Programa:

LEHENENGO ZATIA: Frederick Delius, The walk to the Paradise Garden.

Fernando Velázquez, Biolontxelo eta orkestrarako kontzertua. NOSek eskatutako lana. Estreinaldia.

BIGARREN ZATIA: Ludwig van Beethoven, 3. Sinfonia, Mi bemol maiorren, opus 55 "Heroikoa".

Biolontxelo: Asier Polo Zuzendaria:
Pablo González

jarduerak

KULTURA ETA ONDAREA

DANTZA BELAUNALDIA

Dantzari, artista, sortzaile eta ikusleen hainbat belaunaldi elkartuko dira CIVICANen, dantza eskola edo kolektiboetatik abiatu eta konpainia profesionaletara arte. Ibilbide bat hainbat bidetan barrena, helburu komun batekin: dantzaz gozatzea, konektatzea eta komunitatea sortzea.

PROGRAMA BEREZIA

Dantzan

Maiatzak 14, asteartea, 19:00.
Atartea

Marta Espuelas dantza eskola

Eskola bat izanik, helburua da ikasleen gaitasunak garatzea: Ballet Klasikoko teknikak ikastea, haurren garapen fisiko eta neuronal eta borondatea eta diziplina bultzatzen diren bitartean.

Atena arte konpainia

Dantza konpainiaren bidez, Atena Fundazioaren helburua da adimen ezgaitasuna duten pertsonen gaitasunak agerian jartzea eta gizartea sentibiltzatzea ikuskizun propioak produzituta.



Breathless Dance Center

Dantza hiritarrean espezializatutako dantza eskola. Lehentasuna da kalitatezko prestakuntza eskaintzea familia giroan. Eskolan bultzatzen diren balioetako batzuk dira lana, esfortzua, konstantzia, laguntasuna, apaltasuna edo errespetua.

Faktoria Choreographic Center

Dantza garaikideko nazioarteko ikerketa eta entrenamendurako programa bat du, Marta Coronado, Laida Aldaz eta Carmen Larrazen zuzendaritzapean. Gaur egun, artista bat profesional bihurtzeko, teknikoki hobetzea bezain garrantzitsua da sorkuntzarako gaitasuna suspertzea, pentsamendu artistikoa garatzea eta ikerketarako tresnak eskaintzea.

DONEJAKUE JARDUNALDIAK

Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak, CIVICANekin elkarlanean, XXXI. Donejakue Jardunaldiak antolatu ditu. Donejakue Bidea eta, hedaduraz, Nafarroako historia eta artea ezagutzera emateko jarduera bat da.



HITZALDIA

Maisulana eta haren egilea. Atari bat, arkitekto bat, katedral bat

Maiatzak 16, osteguna, 19:30. Entzunaretoa

> Irakaslea: Juan Ramón Corpas sendagile, idazle eta Donejakue Bidean aditua.

Hitzaldia Mateo maisuaren lanari eta haren eraberritze arkitektonikoari buruzkoa izango da; hau da, hizpide izango dira Loriaren Ataria (sofistikazio espazial eta plastiko handiko atmosfera bat sortzeko gai izan zen sintesi lana, italiar Errenazimentura arte parekorik izan ez zuena) nola gauzatu zen eta zer oihartzun eta esanahi izan zuen, haren eraberritze arkitektoniko handia eta Katedralaren eraikuntzaren ondorioak.

HITZALDI MUSIKATUA

Musika Bidearen Urrezko Aroan

Maiatzak 23, osteguna, 19:30. Entzunaretoa

> Irakaslea: Xabier Armendariz musikologo eta musika kritikoa.

Jakina denez, Donejakue Bidea XI. mendetik XIII.era bitarte hedatu zen bereziki. Mende horietan, Donejakue Bidea komunikazio bide bat izan zen eta Europarekin truke kultural handiak egitea ahalbidetu zuen. Hitzaldian garai horretako musika nagusien errepasoa egingen da: kantu gregorianoa, Notre Dameko Eskolako fresko polifoniko handiak, edo trobadore, trobero eta horien imitzaileen musika, bestek beste.

MAHAI INGURUA

Donejakueren Erromesaldia gazteekin, hezkuntza eta ebangelizazio proiektu baten baitan

Maiatzak 30, osteguna, 19:30.
Entzunaretoa

> Irakasleak: Pablo García apaiza
eta Mari Pepa Martínez Mundo
Nuevo-ren koordinatzailea.

47 urtez gazteekin Apostoluaren
Hilobira egindako erromesaldietan
bizi izandakoak eta Mundo Nuevo
Elkartearen esperientzia oinarri
hartuta, aztertuko da nola
prestatzen den erromesaldia eta
zer helburu jartzen diren, eta
erromesaldiak zer ondorio dituen
gazteengan.

IMAGINA CIVICAN LEHIAKETA

Nafarroako Kutxa Fundazioak IX. Imagina CIVICAN diseinu lehiaketa antolatu du, gazte sortzaileek diseinuaren esparruan egiten duten lana proiektatzeko helburuarekin. CIVICANen funtsa islatuko duen proposamen bat nahi da, islatuko duena CIVICAN zentro bizia eta belaunaldi artekoa dela, parte hartzea bultzatzen duela eta bertan proposamen sozialek eta kulturelek bat egiten dutela.



ERAKUSKETA

Imagina CIVICAN

**Apirilaren 23tik maiatzaren 4ra.
Atartea**

> Lehiaketaren IX. edizioko proiektu finalistak CIVICANeko atartean egonen dira ikusgai. Epaimahaiaren sariaz gain, ikusleen saria ere emango da erakusketan, eta hautetsontziak eta boto txartelak egonen dira nahi duen guztiak bozkatu ahal izateko.

SARI BANAKETA

IX. Imagina CIVICAN diseinu lehiaketa


Maiatzak 3, ostirala, 12:00. Atartea

> Ekitaldi publiko batean, IX. Imagina CIVICAN lehiaketako irabazleak emanen dira ezagutzera. Sariak banatu ondoren, diseinu irabazlearen olana zabalduko da CIVICANen kanpoaldean.



FUNDACIÓN
CAJANAVARRA

civican



> Berrikuntza,
sormen eta
ekintzailetza
jardunaldiak

HEZKUNTZA



Berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzailetzaren VIII. jardunaldiak

Apirilaren 1etik 5era. Iruñea, Tuter eta Elizondo

> Nafarroako Kutxa Fundazioaren programa, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean.

Programaren helburua da Nafarroako Lanbide Heziketaren esparruan berrikuntza, sormena eta ekintzailetza sustatzea eta, hortaz, ziklo horietako ikasleei ez ezik, irakasleei ere zuzenduta dago.

Informazio gehiago liburuxka independentean.



> Bizi naizen hiria
(bir) pentsatzea

INGURUMENA

BIZI NAIZEN HIRIA (BIR)PENTSATZEA

Nafarroako Kutxa Fundazioak hirian esku hartzeko laborategiak antolatu ditu, non parte hartzaileek bizi diren hiria (bir)pentsatuko duten hura jasangarriago egiteko helburuz.

'Eguzkia eta itzala' seriean ehunen arkitekturako kontzeptuak landuko dira, bai eta eguzki izarrarekin duten lotura zuzena ere. Hainbat ariketa egingen dira, eguzkia eta haren arreba itzala ezinbestekoak direla ulertzeko.

4-11 urteko haurrak dituzten familientzat. Koordinatzailea: Maushaus, Arkitektura Tailerra

Nahi duenak parte har dezake, aldez aurretik CIVICANen izena emanda



LABORATEGIA

Ehunen arkitektura

Maiatzak 4, larunbata, 18:00. Patioa

> Ehuna jantzi da gorputzarentzat eta aterpe arimarentzat, eta arintasuna eta moldakortasuna ditu ezaugarri nagusi. Ehunak egiturak inguratzen ditu, dermis bat bailitzan, eta hezurriari, giharrari eta tendoari egokitzen zaie; ehunen arkitekturak egitura humanizatzen du, hezur bihurtuta. Zorua irregularra denean, ehunaren biguntasuna mesedegarria da. Jarduera honetan, muturreko klima duten lekuetan horren emaitza onak ematen dituzten egitura hauen barruan egoteak zer sentazio eragiten duen esperimendatuko da eta ehunezko hainbat egitura eraikiko dira.

LABORATEGIA

Itzalen ehiztariak

Ekainak 8, larunbata, 18:00. Patioa

> Arkitektura espazioa zeharkatzen duen argia da. Argia arkitekturako materialik luxuzkoena da, baina doakoa denez, ez zaio dagokion balioa aitortzen. Tailer honetan dagokion balioa emanen zaio eta argiaz gozatzen eta emozionatzen lagunduko duten elementuak landuko dira. Parte hartzaileak itzalen ehiztari bihurtuko dira, zenbait ariketaren bidez: hasteko, gorputzekin eta, ondoren, zianotipi izeneko teknikaren eta CIVICANeko lorategian aurkitutako altxorren bidez.

- > Pazko asteko oporrak
- > Nire lehen aldia
- > Familia agertokira
- > Murgiltze artistikoko laborategiak
- > Ipuinaren ordua

CIVICAN FAMILIA

PAZKO ASTEKO OPORRAK

Pazko asteko oporretarako programazioa. Jarduera hauen helburua da era askotako istorioak ezagutzea eta asmatzea, pertsonaia harrigarri ugarirekin.



IPUIN ANTZEZTUA

Uretan pasatako ipuinak

Apirilak 23, asteartea, 18:00.
Entzunaretoa

> Kontakizunak 4 urtetik gorako haurrentzat

Xabi Artieda kontalariarekin. Jarduera euskaraz

Txispi kapitaina eta bere zerbitzari pribatua Pong Lurrera iritsi dira espazio misio oso berezi batekin: laguntzaileak aurkitzea lortzeko guk denok gehiago eta hobeto birziklatzea, ura aurrezte eta gure inpaktua zaintzea... Baina ez meteoritoaren inpaktua! Ingurumenaren dugun inpaktua baizik...



ANIMAZIOZKO ZINEMA

¡Canta!

Apirilak 24, asteazkena, 18:00.
Entzunaretoa

> Ikusle guztientzat gomendatua
Zuzendaritza: Garth Jennings eta Christophe Lourdelet

Herrialdea: Estatu Batuak Urtea: 2016
Iraupena: 100 minutu

Bluster Moon koala dotore bat da, garai hobeak bizi izan zituen antzoki bat zuzentzen duena. Badaki bere bizitzako ametsa desagertzeaz dagoela eta aukera bakar bat du antzokia aurrera ateratzeko: kantu txapelketa bat antolatzea eta arrakasta handia izan dezan lortzea.

PAZKO ASTEKO OPORRAK



TAILERRA

Egin zure zinema liburua

**Apirilak 25 (osteguna) eta 26 (ostirala),
18:00-19:30. 3 gela**

> 8-12 urteko neska-mutikoentzat.
Koordinatzailea: Mila García artista plastikoa.

Tailer honetan liburu tolestu bat egingen da Béatrice Coron frantziar artistaren lan zoragarria eta haren liburu *Excentric Cinema* oinarri hartuta. Istorio bat formatu mota horretan kontaktzen ikasiko dugu; nola diseinatu behar den liburua, amaituta dagoenean argiztatu eta pareta batean proiektatu ahal izateko.

Nahi duenak parte har dezake, aldez aurretik CIVICANen izena emanda.

IKUSKIZUNA

Artilogios

**Apirilak 27, larunbata, 18:00.
Entzunaretoa**

> Familia osoarentzako antzerkia
(6 urtetik gora)

PAI Teatro konpainia

Artilogioak gorazarre poetikoa egiteko tramankuluak dira.

Aktorearen erritmoa markatzen duten tramankulu elektronikoak eta mekanikoak, bululu bati konpainia egiten diotenak.

Xuxurlafono bat, xuxurlaren aldarri egiten duen artilogio fonokaptorea. Iggogailu bat, garaiera gogora ekartzen duen artilogio

soinuiggogailu bat. Anagramagile pilotatsua, hitzak ausaz sortzen dituen artilogioa. Eta askoz

gehiago, denak Maria Elena Walsh, Federico García Lorca, Gloria Fuertes, Gerardo Diego, Elsa Bornemann, Antonio Rubio... eta Oswald Pairen olerkiei konpainia egiten.

HAURRENGAN
IRAKURZALETASUNA
SUSTATZEKO JOLASA

Liburu eskoldunak

**Apirilak 23 (asteartea) eta 25
(osteguna), 10:00-12:30. Haur
liburutegia**

(ikus 55. orrialdea)

NIRE LEHEN ALDIA

Nafarroako Kutxa Fundazioak haurrentzako proposamen eszenikoak eta murgiltze esperientziak eskaintzen ditu, 6 hilabetetik gorako haurrak dituzten familientzako sormen espazio batean.

ESPERIENTZIA

Taupadak

Apirilak 13, larunbata, 17:30ean eta 18:30ean. 3. gela.

> 6 hilabetetik 6 urtera bitarteko seme-alabak dituzten familiei zuzendutako esperientzia eszenikoa

Okina Teatro konpainia

Lehenengo bihotz taupadatik hasita, haurtxoa estimuluetatik ikasten hasten da, fantasiaz, argiz eta ehunduraz betetako mundu magiko bat ezagutzen hasten da, eta eguneroko ekintza arrunt bakoitza ohiz kanpoko bihurtzen da, edertasunez beteta.

Taupadak ikusteko eta entzuteko partitura bat da, bizitza sortu eta lehen bihotz taupadak ematen direnetik hasita haurtxoak egiten duen bidaian barrena gidatzen gaituena.



FAMILIA AGERTOKIRA

Familiei zuzenduriko espazioa, modu ludiko eta pedagogikoan, eta hainbat formatu eta estiloren bidez, antzerkia eta musika bezalako artearen adierazpen ezberdinetarako sarrera bat eskaintzeko.



IKUSKIZUNA

Noa, ¡uy uy uy!

Maiatzak 11, larunbata, 18:00.
Auditoriuma.

> Aktore eta txotxongiloen proposamena, 3 eta 6 urte arteko haurrei zuzendua.
Panta Rhei konpainia. Jarduera, euskaraz.
Noa ume alai, bizi eta lasaia da, umore onez, jakin minez, gogoz eta inozentziaz betea. Lan honetan, bere bigarren bitzta urtean zehar, Noak oso modu trebean eta mugarik gabe biziko ditu bere sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak. Bere unibertsoa sortu ahalko du edozer etxetan aurki daitezkeen gauzarik arruntenekin. Noak jakin mina, horrenbeste zirrara eragiten dion bizitzarekiko maitasuna, eta plazer xaloenekiko eta sinpleenekiko gustua adieraziko du. Noak hazteko borrokatzen du, eta batzuetan "neurritz kanpo" ateratzen da; izan ere, aldi berean da umila eta harroa, ausarta eta beldurtia, azkarra eta traketsa, ikusbera eta arrunta.



IKUSKIZUNA

Bee! (artaldea)

Maiatzak 18, larunbata, 18:00.
Auditoriuma.

> Txotxongiloen proposamena, 3 urtetik aurrerako haurrei zuzendua.
Hilando Títeres konpainia
Ninak hegan egin nahi du, hori da bere ametsa. Hegazkin bat pilotatu duen familiako lehenengo emakumea izango da. Baina eguna laburregia da, eta gaua luzeegia... eta amak lotara joateko esaten dionean, Nina, gogo txarrez, ohera joaten da. Lo egiteko ardiak zenbatu behar dira...
Zer aspergarria! Ninak Morena aurkitzen duen arte, hesiaren gainetik salto egin nahi ez duen ardia.

MURGILTZE ARTISTIKOKO LABORATEGIAK

Nafarroako Kutxa Fundazioak sorkuntza artistikoa sustatu nahi du. Haurrek ikuspegia irekitzen lagunduko dieten esperientzia berriak biziko dituzte. Ekintza ludiko eta parte hartzaileak jakintza berriak eskuratu eta jakin mina sustatzeko.

Parte hartze askea, aldez aurretik CIVICANen izena emanda

LABORATEGIA

Geodesia ziberespaziala

Maiatzak 25, larunbata, 18:00. 3. gela

> Koordinatzaileak: Elena Albert eta Iñigo Yoldi, Archicosas

6 eta 10 urte arteko haurrei zuzendua

Tailer honetan sare geodesikoen tanketarako hiru dimentsioko egiturak egingo dituzte. Grabitatea eta oreka desafiaturako dira material hauskorak erabilita. Modulu sinpleekin hasiko gara eta konplexutasuna bilatzen joango gara formak sortu ahala. Egitura horiek historia bat kontatzeko balioko duen agertoki bat sortuko dute bertako biztanleen eta haien errutinen bitartez.



LABORATEGIA

Collage bidaiariak

Ekainak 1, larunbata, 18:00. Atondoa

> Koordinatzailea: Juan Manuel Fernández Cuichán

6 eta 10 urte arteko haurrei zuzendua

Bidaia gida zaharren sorta bat izango da collage eta eskulturako sorkuntza tailerra egiteko abiapuntua. Mapak, testuak eta bolumenak uztertuta, kartografia berri bat osatu eta ibilbide erreal edo fantastiko berriak irudikatzen proposamen artistiko bat.

LABORATEGIA

Soinu narrazio interaktiboak

Ekainak 15, larunbata, 18:00. 3. gela

> Koordinatzailea: Mónica Rikić, teknologia berrien artista eta sorkuntzako programatzailea.

6 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendua.

Tailer honetan fikzio interaktibo bat sortuko da, eta soinua emango zaio audio pistak koloreekin lotzeko aukera ematen duen asmatu-erako gailu txiki baten bidez. Horretarako, lehenik eta behin, lerro anitzeko historia bat planteatzen eta sortzen ikasiko da. Ondoren, sistema interaktibo txiki horri esker, historiaren hainbat zatirekin lotuta egongo diren hainbat kolore banatu ahaliko dira.

jarduerak CIVICAN FAMILIA

IPUINAREN ORDUA

4 urtetik* aurrerako haurrei zuzendutako jarduera. Asteroko hitzordu bat liburuetako historia eta pertsonaia erakargarrienekin. Liburutegiko liburuen artean, oso hurbiletik entzuteko historiak.

* Jarduera hau 4 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago. Haurrekin batera doazen helduak eta adin horretatik beherako haurrak liburutegitik kanpo egon beharko dute saioa amaitu arte. Jarduerak irauten duen bitartean (18:00etatik 19:00etara) liburutegiko langileak arduratuko dira haurrez. Liburutegiko gainerako ohiko jarduera eta zerbitzuak 19:00etatik aurrera berrabiaraziko dira.



Liburuak ehuntzen

Apirilak 3, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Virginia Senosiainekin

Ipuin robotikoak

Apirilak 10, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Sergio de Andrésekin

Wizard of colors

Maiatzak 8, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Alexia Papantchevekin
Jarduera ingelesez izango da

Ipuin azukretuak

Maiatzak 15, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Sergio de Andrésekin

Ashiraren bidaia

Maiatzak 22, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Virginia Senosiainekin

Hizkiez osoturiko euri tantak

Maiatzak 29, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Juan Luis Napalekin

Ez umea eta zuhaitza


Ekainak 5, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Virginia Senosiainekin

Pontxaren ipuin jostariak

Ekainak 12, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Jaione Urtasunekin
Jarduera euskaraz izango da

- 
- A photograph of an elderly person with white hair, seen from the side, sitting in a library. They are wearing a checkered shirt and a grey sweater. They are holding an open book or magazine. The background is filled with bookshelves. The entire image has a blue color overlay.
- > Irakurketa erakusleioa
 - > Literatura solasaldiak
 - > Ezagutu zure liburutegia
 - > Bost zentzumenekin irakurtzea
 - > Apirila, liburuaren hilabetea
 - > Giza liburutegiak
 - > #Liburutegia, #Gaztelurraldea

CIVICAN LIBURUTEGIA

IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA

Liburutegiko erakusleihoetan hainbat argialetxetako gomendioak izaten dira hilerok: literaturako berritasunak, gaurkotasuneko irakurketak eta programaturiko jardueretako gaiei buruz gehiago jakiteko obra sorta bat.

Erakusleiho bakoitzeko liburuak dagokion irakurketa gidan bilduta daude eta liburutegiaren webgunean kontsulta daitezke:

<http://www.bibliotecaspublicas.es/CIVICAN>



Ilustrazioa: Q. Buchholz.

Irakurtzea eta irakurria izatea

Apirilaren 1etik 30era. Gazte-heldu liburutegia

> Irakurleak ispiluaren aurrean jarriko dituen lagin bat aurkeztuko dugu: liburuzaleen historiak, orriak birrintzen dituzten eta beren pasioa literaturako argudio bilakatzen duten liburu irense aseezinei buruzkoak, letrazale gaixoenak, liburutegi aztarnarienak, letra ameslarienak... Metairakurketa asko, "meta" gisa irakurketa duenarentzat.

Ikusi nola irakurtzen duten!

Apirilaren 1etik 30era. Haur liburutegia

> Irakurtzea gustuko baduzu, ez galdu izenburu hauek, haietako protagonistak zu bezalakoak baitira: orrien artean gozatzen duen eta bere bizitza libururik gabe irudikatu ezin duen jendea. Liburutegi saguak, printzeak eta banpiro tinta zurrupatzailleak daude. Guztiak dute ezaugarri komun bat: Izugarri maite dute irakurtzea!



IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA

Munduko bizilagunak

Maiatzaren 2tik ekainaren 8ra. Gazte-heldu liburutegia

> Gure hirietan gero eta gizaki anitzagoak aurki ditzakegu: hainbat tonutako aurpegiak, jantzi desberdinak, eta kaleak eta bitzta alaitzen dituzten hamaika festa eta ohitura. Inoiz ez genuen halako ahots, hizkuntza eta erritmo aniztasunik izan; gaur arte ez genuen inoiz etxetik atera gabe hainbat kultura ezagutzeko aukera eduki. Obra sorta hau aukera paregabea da fenomeno hori hobeto ezagutzeko, bizikidetzaz sustatzeko eta aniztasuna ospatzeko.

Munduko bizilagunak

Maiatzaren 2tik ekainaren 8ra. Haur liburutegia

> Desberdinak gara. Beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten, beste azal kolore bat duten, eta ohitura eta sinismen anitz duten pertsonaz inguratuta bizi gara. Batzuk gure hirian jaio ziren, beste batzuk beste herrialde batzuetatik etorri dira, lan bat bilatu edo gerrari ihes egiteko. Hemen jaio ziren pertsonetako askok joan behar izan zuten beste herrialde batzuetara bizimodua ateratzeko. Batzuek eta besteek faltan ematen dute beren herrialdea, baina gogor lan egiten dute dauden lekuan daudela. Pertsona desberdinekin bizitzea aberastasun handia da, eta liburuek ere jorratu dituzte gai horiek: bizikidetzaz, errespetua eta bakea.

Oporretan irakurtzeko

Ekainaren 10etik uztailaren 4ra. Gazte-heldu liburutegia

> Oporrak iritsi dira, egunak eta aisiarako denbora luzatu, eta liburuak bilakatzen dira gure lagunik onenak mendian, hondartzan eta igerilekuan. Irakurketaz beteriko uda ahantzezina igarotzeko izenburu onenak proposatuko dizkizuegu.

Ondo ibili...!

Ekainaren 10etik uztailaren 4ra. Haur liburutegia

> Badatoz uda, oporrak eta bidaiak. Liburutegian turista txikientzako hamaika gida praktikoko prestatu ditugu, helmuga ohikoenez topera gozatzeko mila aholku eta ideia biltzen dituztenak; haiekin batera, hiri horietan giroturiko ipuin eta eleberrien aukeraketa bat. Ideia handiak mini-ibiltarientzat!



LITERATUR SOLASALDIAK

Liburutegiak zazpi irakurketa klub koordinatzen ditu: lau helduentzat (literatura orokorreko bi –bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz–, beste bi espezializatu –literatura historikoa eta bidaiena, eta haur eta gazte literatura–) eta haur, gazte eta umetxoentzako hiru.

Klubetako kide izateko, eta solasaldietan parte hartzeko, alde zurretik izena eman behar da liburutegian.

Ilustrazioa:
J. Rothman.



Kafea liburuekin: Sudurren istorioak

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Genero guztietako literatura, helduei zuzendua. Koordinatzailea: Villar Arellano
Cyrano Bergeracekoa frantziar poeta eta antzerkigilearen jaiotzatik 400 urte igaro diren honetan, Edmond Rostandek bere biografian oinarrituta sortutako pertsonaiarengana hurbilduko gara.

Hiruhileko solasaldiak sudurrei buruzko beste testu ezagun batzuekin osatuko ditugu:

Apirilak 16: *Cyrano de Bergerac*, E. Rostand

Maiatzak 14: *A un hombre de gran nariz*, F. de Quevedo

Ekainak 4: *La nariz (Sudurra)*, N. Gogol

Itaka: Emakumeak borrokarako prest

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Literatura historikoa eta bidaietako, helduei zuzendua. Koordinatzailea: Rebeca Erro

Askok ez dakiten arren, Antzinarotik emakumeek maiz parte hartu izan dute gerretan. Hiruhileko honetan Dulce Chacónen eta Laird Hunten lanak irakurriko ditugu, emakumeek bi gerra zibili buruz emandako testigantza garrantzitsuak baitira: Espainiakoa eta Ipar Amerikakoa.

Apirilak 9: *Neverhome*, Laird Hunt

Maiatzak 21: *La voz dormida*, Dulce Chacón

LITERATUR SOLASALDIAK

Liburuz liburu: Besteen seme-alabak

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Euskarazko literatura, helduei zuzendua.
Koordinatzailea: Ángel Erro

Katixa Agirreren Amek ez dute, eta Han ez banengo bezala, bi eleberrri gogor dira; emakumeek bizitako muturreko egoerak biltzen dituzte, batak gurea izan litekeen hiri batean, eta besteak Jugoslavia ohiko gerraren hondarrak oinarri hartuta. Biak abiatzen dira galdera beretik: zerk eraman dezake ama bat bere semea edo alaba hiltzera?

Maiatzak 7: Amek ez dute, Katixa Agirre

Ekainak 11: Han ez banengo bezala, Slavenka Drakulic

Ipuinen behatokia: hemengo naiz, handik nator

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Haur eta gazte literatura, helduei zuzendua.
Koordinatzaileak: Villar Arellano eta Sara Machuca

Gure mundu garaikidea anitza, multilateral eta konplexua da. Bizikidetzatza erronka handi bat da, eta haur eta gazte liburuek ez diote bizkarra eman gaiari. Hiruhileko honetan bi proposamen osagarri ikusiko ditugu gure behatokitik: paisaia berri batera eta bertako biztanleetara egokitzeko zailtasuna erakusten duen album bat, eta Boli Kostan giroturiko komiki bat, estereotipoetatik urrun, Afrikako emakume gazte baten eguneroko bizitza erakusten duena.

Apirilak 30: Elofa y los bichos, Jairo Buitrago eta Rafael Yockteng

Maiatzak 28: Aya de Yopougon, Clément Oubrière*

*Afrikaren Egunaren ospakizunaren barruan bildutako jardueran, Al Sur de Sahara: África Imprescindible partzuergoarekin lankidetzan (ikus, 17. orria).



Ostiralean... TBO

**Ostiraletan, apirilaren 5etik
ekainaren 14ra, 18:00. 1. gela**

> Komiki kluba, 9 urtetik gorako haurrei zuzendua. Koordinatzailea: Sara Machuca

Gustuko dituzu Asterix eta Tintin? Nahiko zenituzke komikietako beste abenturazale batzuk ezagutu? Hala bada, hauxe da zure txokoa; gure pertsonaia gogokoenei buruz hitz egiteko, iradokizunak partekatze eta izenburu berriak ezagutzeko txoko bat.

"Ipuin albumak" proiektuaren aurkezpena.



Bucclub

Ostiraletan, apirilaren 5etik ekainaren 14ra, 19:00. 1. gela

> Irakurketako gazte kluba, 12 urtetik aurrera. Koordinatzailea: María Arbeloa
Ostiral arratsaldetan leku bat gordeko dizugu liburutegian; denbora libreaz gozatzeko eta zure zaletasunak zu bezalako beste batzuekin partekatzeko espazio bat. Zinema, musika, manga, sare sozialak eta askoz ere gehiago izango dituzu zain gune honetan astero.

Malakatu

Asteazkena, 16:15-17:00. Haur liburutegia

> 2016 eta 2017. urteetan jaiotako haurtxoak dituzten familiei zuzendutako irakurketa kluba.

Koordinatzailea: Iñaki Carretero
Ipuinez gozatzeko liburutegiko txoko bat; historiak, esperientziak, orriak eta barreak partekatzeko talde bat; formula eta errima artean liburuak deskubritzeko klub bat: "Fi, fa, fu, malakatu!"

Apirilak 10. Ipuin metagarriak.

Maiatzak 15. Segidak, poesia.

Ekainak 12. Udarako gure gogokoena.

EZAGUTU ZURE LIBURUTEGIA

Liburutegiak eskaintzen dituen aukera guztiak eza-gutzeko eta bertako baliabideak erabiltzen ikasteko programa bat.

Parte hartze askea, aldez aurretik CIVICANen izena emanda: 948 222 44 telefonoaren edo webgunearen bitartez.

<http://www.bibliotecaspublicas.es/CIVICAN>



PRESTAKUNTZA JARDUERA

Liburutegirako bisita gidatuak

Apirilak 1, astelehena; maiatzak 13, astelehena; eta ekainak 3, astelehena, 17:00.

Gazte-heldu liburutegia

> Gazteei eta helduei zuzendua.

Koordinatzailea: Lorena Gil

Ibilbide bat liburutegiko ataletatik, funtsa antolatzeko eta katalogoetara sartzeko sistema, eta zerbitzuen funtzionamendua ezagutzeko. Informazio osagarria emango da idatziz.

PRESTAKUNTZA JARDUERA

Irakasleentzako bisita gidatuak

Apirilak 9, asteartea, eta maiatzak 21, asteartea, 18:00. Gazte-heldu liburutegia

> Hezkuntza ziklo guztietako irakasleei zuzendua. Koordinatzailea: Villar Arellano

Talde txikietan (4 edo 5 pertsona) antolaturiko topaketa bat liburutegian eskuragarri dauden hezkuntza baliabideak eta haiek eskuratzeko modua zein aukera didaktikoak ezagutzeko.



Ilustrazioa: Puño.

LANTEGI-LEHIAKETA

Sasijakintsuen bila

Ostegunetan, apirilaren 4tik ekainaren 13ra, 17:00etatik 20:00etara. Haur liburutegia

> 6 urtetik gorako haurrei zuzendua. Jon Angulok eta Sara Machucak koordinatua.

Jakingo zenuke Txanogorritxu basoan barrena gidatzen Google Maps-en laguntzarekin? Eta Yeti-ren erretratu zahar bat Paint-ekin koloreztatzen? Eta soldadu inperial bat gosaltzen erakusten duten irudi argitaragabeak bilatzen? Hori guztia eta askoz ere gehiago izango duzu eskuragarri gure asteroko erronkan parte hartzen baduzu.

Eman izena, ikasi trikimailu informatiko onenak eta saiatu probak gainditzen.

Zure zain izango gaituzu liburutegian!

BOST ZENTZUMENEKIN IRAKURTZEA

Liburutegiko ohiko funtzionamendua hausten duten proposamenak, orriak irudiekin, soinuekin, usainekin, testurekin, zaporeekin... konbinatzen dituzten irakurketak Literaturan barrena eramaten uzteko eta gurekin beste lengoaia eta plazer batzuetan murgiltzeko gonbidapen bat. Bazatoz?

IRAKURKETA PUBLIKOA

Ilunpetan irakurtzea


Maiatzak 16, osteguna, 19:30. Gazte-heldu liburutegia. Sarrera askea ONCEekin batera antolaturiko jarduera.

> Boz goran eginiko braille irakurketa partekatu bat izango da irakurtzeko beste modu batzuk ezagutu eta itsuen errealitatera hurbiltzeko abiapuntua. Nola irakurtzen da ukimenaren bidez? Isileko irakurketa izaten da edo hatzek ahotsaren laguntza behar dute intonatzeke? Audioliburuak al dira braille sistemarekiko alternatiba arrakastatsuenak? Galdera horiek eta beste batzuk izango dira liburutegian, ilunpetan egingo den ikusleen eta itsuen arteko topaketaren hari eroalea.



APIRILA, LIBURUAREN HILABETEA

Apirilean zehar Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna (asteartea, hilak 2) eta Liburuaren Nazioarteko Eguna (asteartea, 23) izango dira. Hori ospatzeko, CIVICANek irakurketa sustatzeko jarduera sorta bat proposatzen dizue.



Ilustrazioa: K. Kasparavičius.

OSPAKIZUNA

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna

**Apirilak 2, asteartea, 18:00.
Haur liburutegia**

> Apirilaren 2a Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da mundu osoan, H. C. Andersen-en jaiotzaren eguna (1805) ospatzeko.

Aurten Lituania izan da kartelaren diseinuaren eta mundu osoko haurrei zuzendutako mezua sortzearen arduraduna. "Liburuek lasaiago ibiltzen laguntzen digute" da aurtengo leloa, eta Deimantė Rybakovienė-k eta Kęstutis Kasparavičius-ek sortu dute, hari jarraikiz.

Gure liburutegiak bat egingo du ospakizunarekin, eta horretarako atsedernaldi txiki bat hartuko du bere eguneroko funtzionamenduan, mezu hori partekatu eta gure funtsean aurki ditzakegun lituanier ilustratzailearen zenbait liburu aurkezteko.

Horretaz gain, Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil delakoak antolatutako "SELFIE LIJ 2019" lehiaketara aurkezturiko argazkiak proiektatuko dira.

LEHIAKETA

SELFIE LIJ 2019

Martxoaren 25etik apirilaren 1era. Haur liburutegia

> Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, haur liburutegiak Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil delakoak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren babesarekin antolaturiko "SELFIE LIJ 2019" lehiaketan parte hartzeraz animatu nahi ditu irakurleak.

Horretarako, haur edo gazte literaturako pertsonaia baten ilustrazio bat edo eszena bat hautatzea eta hura birsortzen duen argazki bat egitea proposatzen da, eta gero liburutegian aurkeztea, apirilaren 1a baino lehen. Parte hartu eta eskuratu sari bat!

Kontsultatu oinarriak liburutegian bertan.

IRAKURKETA SUSTATZEKO JOLASA

Oskola duten liburuak

Apirilak 23, asteartea, eta apirilak 25 osteguna, 10:00etatik 11:00etara (4-6 urteko haurrei zuzendua) eta 11:30etik 12:30era (7-10 urteko haurrei zuzendua).

Haur liburutegia

> Zer ezaugarri partekatzen dute krokodiloak, inurriak, sugeak, igelak eta barraskiloak?

Guztiak erruten dituztela arrautzak! Izan ere, arrautza bat, oiloarena, dragoiarena edo pazkokoa izan, jaki bat baino askoz ere gehiago da, eta beti du sorpresa bat barruan.

Pazko Astean, liburutegiak oskoletik ateratzen diren edozer espezieta animaliei buruzko liburuak ezagutzeko joko dibertigarri bat proposatzen du.



LEHIAKETA

2019ko AZ saria: Irakurtzea eta irakurria izatea

Apirilaren 1etik 12ra. Gazte-heldu liburutegia

> Gure lehiaketako aurreko edizioetako parte hartzaileek egile klasiko eta garaikideekin, nazioarteko idazleekin edo CIVICANen izan diren sortzaileekin loturiko hainbat galdera erantzun behar izan zituzten.

Aurtengo galderek fikzio irakurleen gaia izango dute ezaugarri komun gisa: fikziozko agertokietan mota guztietako peripezien protagonista diren pertsonaiak: literatur bilaketa misterioitsuak, abentura zoragarriak, drama zirraragarriak... Sari gisa gure urteroko AZ trofeoa duen lehiaketa eta bere liburu hautaketa erakargarria hilaren 1ean hasiko da, eta galdera edo erronka bat proposatuko du egunero. Liburutegian edo sare sozialen bidez parte hartu ahalgo da. Hilaren 23an iragarriko da irabazlearen izena.



**IRAKURKETA ETA EUSKARAZKO
LITERATURA SUSTATZEKO
PROGRAMA**

**Irakurri, gozatu
eta oparitu**

**Martxoaren 18tik maiatzaren 31ra.
Liburutegiak**

> Maileguan euskarazko liburu bat hartu eta irakurri dutela frogatzen duten liburutegiko erabiltzaileek programari atxikitako liburudendetan euskarazko liburu bat erosteko % 35eko deskontu txartela jasoko dute.

Iruñeko Udalarekin eta Euskaltzaleen Topagunearekin lankidetzan eginiko ekimen bat; Iruñeko liburutegi guztien parte hartzearekin.

**ERAKUSKETA EKINTZA
ARTISTIKOA**

Irakurleari omenaldia

**Apirilak 23, asteartea. Gazte-heldu
liburutegia**

> Juan Manuel Fernández Cuichánekin Alde batera utzitako liburu sorta bat liburutegira itzuli da objektu artistiko itxurapean; irakurria izateko jaiotakoaren gainean esku hartzeko modu batek hura irakurri zuena omentzeko balio du orain.

IRAKURKETA ERAKUSLEIHOA

**Irakurtzea eta irakurria
izatea**

**Apirilaren 1etik 30era. Gazte-heldu
liburutegia**

**Ikusi nola irakurtzen
duten!**

Apirilaren 1etik 30era. Haur liburutegia

(ikus, 47. orria)


ABEGI LIBURUTEGIAK

Garapen Jasangarrirako 2030erako Agendaren esparruan, Nafarroako liburutegiek Milurtekoko Helburuak zabaltzeko baterako lankidetzazko proiektu bat antolatu dute. Iruñean eta eskualdean, lankidetzazko proiektu horren hari eroalea migrazioaren fenomenoak izango da.

Agenda 2030ek garapenerako funtsezko alderdi bat ikusten du migrazioan, 10. helburuarekin lotuta: herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea. Migratzaileak munduko biztanleriaren % 3 dira, gutxi gorabehera, baina munduko BPGaren % 9 baino gehiago sortzen dute, hau da, beren jatorrizko herrian geratu izan balira baino 3 bilioi dolar gehiago.

“Abegi liburutegiak” proiektuak migratzaileek garapen kolektiboari egiten dioten ekarpena aintzatetsi eta topaketa eta bizikidetzaz bultzatu nahi ditu.

Ilustrazioa: G. D. Eksjoğlu.



ABEGI LIBURUTEGIAK

TOPAKETA PERTSONALAK

Giza liburutegiak. Elkarrengana hurbilduz, elkar ezagutuz

**Maiatzak 9, osteguna, 18:00etatik
20:00etara. Liburutegia**

> Liburutegi honetan, liburuen ordez, kontatzea merezi duten historiak dituzten pertsonak eskaintzen dira. Danimarkako gazte talde batek 1993. urtean sortua, Giza Liburutegia proiektua aurreiritziak eta estereotipoak gainditzeko elkarrizketa proposatzen duen jarduera bat da.

Oso funtzionamendu sinplea du: egun batzuk lehenago, liburutegiak egileen (boluntarioak) eta izenburuen (pertsonek horiek jorratuko dituzten gaiak) katalogo bat aurkeztuko du. Jardueran entzule gisa parte hartu nahi duenak erreserba bat egin beharko du alde zurretik.

Jardueraren egunean, egile bakoitza txanda bakoitzean izena eman duen pertsonarekin eseriko da, eta 15-20 minutuz azalduko dio iragarritako gaia. Horretaz gain, balizko galderei erantzun eta pertsonarekin hitz egingo du dagokion denbora tartea amaitu arte (hurrengo erreserba hasten den arte). Hortaz, pertsonak bakarka parte hartuko dute jarduera honetan, eta ezinbestekoa izango da alde zurretik izena ematea liburutegian bertan.



GIZARTE LABORATEGIA

Liburuekin bizitzea

Maiatzaren 9tik 30era. 3. gela

> Liburuzaintzaren arloko profesionalei eta/edo gizarte bitartekaritzarekin loturikoei zuzendua.

Gogoetak partekatu eta kulturaren rol integratzaileari eta liburutegiek emantzipazio eta bizikidetzaren gune gisa eskaintzen dituzten aukerei buruz hitz egiteko espazio bat.

**Parte hartze askea, alde zurretik
CIVICANen izena emanda.**

(ikus, 18. orria)

ERAKUSLEIHOA

Munduko bizilagunak

Maiatzaren 2tik ekainaren 8ra. Liburutegiak

> Aniztasuna eta bizikidetzat literaturan (ikus, 48. orria)

AHOZKO NARRAZIOA

Ashiraren bidaia

Maiatzak 22, asteazkena, 18:00. Haur liburutegia

> Virginia Senosiainekin (ikus, 45. orria)

Sarrera askea 4 urtetik gorakoentzat



Ilustrazioa:
E. Urberuaga.

LITERATUR SOLASALDIAK

Ipuinen behatokia: hemengo naiz, handik nator

Asteartea, 18:00. 1. gela

> Haur eta gazte literatura, helduei zuzendua.

Koordinatzaileak: Villar Arellano eta Sara Machuca (ikus, 50. orria).

BOZ GORAN



Boz goran

Astelehenetan, apirilaren 29tik ekainaren 17ra, 18:00. Haur liburutegia

> 4 urtetik gorako haurrei zuzendua.

Irakurketa sustatzeko programa, helburu duena haurrak testu onenetara hurbiltzea heldu baten ahotsaren bitartez; hitzak bizirik dauden eta liburu baten erakargarri guztia erakusten duten hurbileko topaketa bat.

Boluntario talde batek txandaka egingo ditu irakurketak liburutegiko taldearen laguntzarekin: ipuinek eta poemek soinua jarriko diete liburutegiko astelehenei.

#LIBURUTEGIA, #GAZTELURRALDEA

Bereziki nerabeei eta gazteei zuzendutako proposamen sorta bat.



JOLASAK

Joko-TK, abentura eta jolasa

Larunbatetan, apirilaren 6tik ekainaren 15era, 18:00. 1. gela

> 12 urtetik gorako nerabeei zuzendua.
Ez galdu proposamen hau: talde txikitan partekatzen eta liburutegian larunbat goizez goatzeko jolas sorta bat. Kontsultatu gure katalogoa (baita webgunean ere: www.bibliotecaspublicas.es/CIVICAN), aukeratu zure jokorik gogokoena eta erreserbatu mahai bat (edo sartu taldeetako batean). Zure zain gaude!

SOLASALDIA

BUCCLUB. Irakurketako Gazte Kluba

Ostiraletan, apirilaren 5etik ekainaren 14ra, 19:00. 1. gela

> Irakurketako gazte kluba (12 urtetik aurrera). Koordinatzailea: María Arbeloa

Ostiral arratsaldetan leku bat gordeko dizugu liburutegian; denbora libreaz goatzeko eta zure zaletasunak zu bezalako beste batzuekin partekatzen espazio bat. Zinema, musika, manga, sare sozialak eta askoz ere gehiago izango dituzu zain gune honetan astero.

SOLASALDIA

Irakurketa epizentroak

Ostegunetan, maiatzak 2 eta 9, 18:00. 1. gela

> Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua.

Koordinatzaileak: Ana Domínguez, Lorena Gil eta Villar Arellano

CIVICAN liburutegiak bat egin du Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearen eta Hezkuntza Sailaren ekimen horrekin, eta ikasturte osoan zehar Foru Komunitatean biltzen ari diren 30 klubetako biren egoitza da. Programan Nafarroako 11 institututako 600 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute, eta helburu du 2017n argitaraturiko gazte eleberri onena hautatzea.

Hiruhileko irakurketa: *El matarife*, Fernando Lalana.

